

B2

1. ABIZENA	NAN zk.
2. ABIZENA	AZTERKETA EGUNA
IZENA	AZTERKETA TOKIA

Probaren iraupena: 50 min

1. Zein da ZUZENA?

- a) Eguzkian jarri baino lehen eman krema aurpegian.
- b) Zer hizkuntzan idatzi duzu eskutitza?
- c) Makina bat etxetan ikusten dira bonbilla ekologikoak.
- d) Edozein egunkarian ikusiko duzu berri hori.

2.- Alzheimer gaitzaren kontrako tratamendu lortuko da

- a) adintsua / egunsentian.
- b) eraginkorra / etorkizunean.
- c) zorienttua / itxaropenean.
- d) ikaragarria / gaitasunean.

3.- Administrariak esandakoa ez da zuzendariak esandakoarekin.

- a) bat etorri
- b) adi egon
- c) gogoan hartu
- d) errentan eman

4.- Zein da ZUZENA?

- a) Norekin hitz egiten ari duzu telefonoz?
- b) Bisitari asko hurreratu du azokara aurten.
- c) Konturatu zara gaur ez dela ia inor etorri?
- d) Hasi duzu oparitu nizun liburua irakurtzen?

5.- gizarte zerbitzuetakoekin batera aritu gara lanean.

- a) 2010ko martxoaren 8tik 11era bitartean
- b) Urtarrileko 22a ingurura arte
- c) Otsailaren 8tik 25era
- d) Ekainetik 17a eta gero

6.- Oporretatik, askoz lasaiago ikusten dut.

- a) itzultzera
- b) itzuli baino
- c) itzuli aurretik
- d) itzuli denetik

7.- Kirola egiten hasi baino lehen, giharrak ondo behar dira lesiorik ez izateko.

- a) hautsi
- b) hoztu
- c) luzatu
- d) gortu

8.- Herri txiki hau bizi da, eta lasaitasun bila doazen oso erakargarria da.

- a) turismoan / bisitariei
- b) turismoko / bisitariak
- c) turismotik / bisitarien zat
- d) turismoaren / bisitariengan

9.- sartu da gaur lanera.

- a) Zortzi eta erdietan
- b) Zortzi eta laurden gutxiagotan
- c) Zazpi eta hogeian
- d) Bederatziak laurdenak gutxian

10.- Zahartzaroan ondo bizi ahal izateko diru aurreztu zuen gaztetan.

- a) hain
- b) bezain
- c) bezalako
- d) adina

11.- Bezeroak zain izango, ez lasai-lasai kafea hartzen.

- a) balitu / legoke
- b) baleki / lituzke
- c) bagenek / genituzke
- d) balitz / leudeke

12.- Gatz gehiegi bihotzekoa arriskua areagotzen du.

- a) hartzeak / izateko
- b) hartzea / izatea
- c) hartzeko / izateari
- d) hartzera / izaten

13.- Zein da ZUZENA?

- a) Ez diote elkar hitz egiten eztabaidatu zutenetik.
- b) Elkar joan ziren bidaia egitera.
- c) Elkarrengan egia guztia esaten ari dira.
- d) Txikitatik ezagutzen dute elkar.

14.- Jarraitu elkarrizketa:

- **Barkatu, kafesnea atera beharrean, kafe hutsa atera dizut!**

-

- a) Ezta gutxiagorik ere!
- b) Hori esatea ere!
- c) Banengoen, ba, ni!
- d) Eutsi gogor!

15.- Hartu duen erabakiak ekar ondorioak ikaragarriak dira.

- a) lezakeen
- b) litekeen
- c) litzakeen
- d) liezaioketen

16.- Eman zidan erantzunak zentzu bikoitza zuenez, irribarre egin zidan.

- a) garaia
- b) maltzurra
- c) latza
- d) mehea

17.- Adinean aurrera nabaritzen zaio entzumena galtzen ari dela.

- a) joan bezala
- b) doan arren
- c) doan neurrian
- d) joan beharrean

18.- Emakumeak dendako sarreran du eta erakusleihoaren kontra erori da.

- a) aintzat hartu
- b) gainezka egin
- c) burutik atera
- d) estropezu egin

19.- Zein da ZUZENA?

- a) Mahaiko azpira jausi zaizkizu betaurrekoak.
- b) Egunak eman ditut nagusiaren erantzun baten zain.
- c) Lankidearen esker garaiz iritsi naiz lanera.
- d) Lagunari bila ibili zen etxera itzultzeko orduan.

20.- Ez dira gutxi

- a) antzera pentsatzen dutenak.
- b) besteen bizitzetan sartzen direla.
- c) modari itsu-itsuan jarraitzen diotenez.
- d) deitu gabe sartzen dutenik.

21.- Telefono-zerbitzua aldi baterako eten diote.

- a) ez ordaintzeagatik
- b) ez badu ordaindu ere
- c) ez ordaintzera
- d) ez duela ordaindu

22.- beldur izan dira gau osoan.

- a) Haizei bortitzei
- b) Haize bortitzak
- c) Haize bortitzengan
- d) Haize bortitzen

23.- Harrera-zerbitzuan lan egiten du eta pazientziaz eta handiz erantzuten die denei.

- a) ahultasun
- b) zuzenbide
- c) apaltasun
- d) baimen

24.-, amaiera arte joko onari eutsi diote.

- a) Partida irabazi ez badute ere
- b) Denboraldi honetan bi partida jokatuko balituzte
- c) Azken partida jokatzeke moduan baldin baude
- d) Larunbatean jokatuko duten partida erabakigarria ez ezik

25.- Proiektu hau beste batzuk bideratzeko hartu dute.

- a) ereduarena
- b) ereduko
- c) eredutzat
- d) eredia

26.- Nekazari bat hil zen atzo, traktorean enborra gainera erori

- a) zetorren / zuenean
- b) zekartzan / ziotenean
- c) zetozen / zenean
- d) zeraman / zitzaionean

27.- Ez zituzten giltzak aurkitu, baina ez zioten inori galdu izana

- a) hobetu.
- b) leporatu.
- c) arduratu.
- d) tolestu.

28.- Istripua izan, eta autoan galdu zuen konortea.

- a) horretan
- b) bertatik
- c) bertan
- d) berean

29.- Lur-jabeek presio handia eta mehatxuak jaso badituzte ere, ez dituzte lurrak saldu nahi izan. Zein da esaldi horren PAREKOA?

- a) Nahiz eta lurrak saldu, presio handiak eta mehatxuak jasotzen jarraitu dute lur-jabeek.
- b) Presioa ez ezik, mehatxuak ere jaso dituztelako ez dituzte lurrak salduko.
- c) Lurrak galtzeaz gain, lur-jabeak presioak eta mehatxuak jasaten ari dira.
- d) Lur-jabeak ez daude prest lurrak saltzeko, mehatxuak eta presioa jasan arren.

30.- Zein da ZUZENA?

- a) Ume guztiei gustatzen zaizkie gozokiak jatea.
- b) Ez ditut guraso guztiekin hitz egitea lortu.
- c) Ez zenituen eskatu liburuak horra bidaltzea.
- d) Lagunak afaltzera gonbidatu dituzte larunbatean.

31.- Kafeari eman, ezpainak garbitu eta berehalaxe abiatu zen lanera.

- a) mailukada
- b) koilarakada
- c) zurrutada
- d) zakukada

32.- entzun genuen kotoi-zotzak erabiltzea txarra dela

- a) Berrietatik / belarrietara
- b) Berriari / belarrietan
- c) Berriagatik / belarrietatik
- d) Berrietan / belarrietarako

33.- Aisialdia bizi-kalitatearen adierazle bihurtu da;, askok oker erabiltzen du.

- a) hala ere
- b) baita ere
- c) hau da
- d) beraz

34.- Udalak herritarren eskariei jaramon egin die, eta ekainetik irailera bitartean aparkatzea doakoa izango da herri osoan. Zein da esaldi horren PAREKOA?

- a) Herritarrek eskatu duten arren, ez du ematen udan doan aparkatu ahal izango denik.
- b) Udan ez da ordaindu behar izango herrian aparkatzeko, Udalak herritarrek eskatu dutena kontuan hartu duelako.
- c) Udalak erabaki du ekainean eta irailean ez dela ordaindu behar izango aparkatzeko, herritarrek hala eskatuta.
- d) Herritarrek Udalari eskatu dioten bezala, negu osoan doan aparkatu ahal izango da herrian.

35.- Uler zer egin behar duzun, hurrengo pausoarekin jarrai

- a) ezazu / dezazun
- b) itzazu / daitezen
- c) zaitezte / dezan
- d) zaitetz / dadin

36.- Zein da ZUZENA?

- a) Hogei eta bi mila eta seiehun.
- b) Hirurogei hamar mila eta laurehun.
- c) Hogei mila eta bostehun.
- d) Laurehun eta mila eta hogei eta bost.

37.- Adituek diotenez, uste baino jende du gehiegizko pisua.

- a) gehienak
- b) gehiagok
- c) askok
- d) gehiegik

38.- Zein da ZUZENA?

- a) Etzi izan zen euria egin zuen eguna.
- b) Badira lau urte etorri nintzela hona bizitzera.
- c) Izena ematera joan nintzenean, karneta eskatzen zidaten.
- d) Herenegun birritan joaten nintzen akupunturara.

39.- Egunkarian ikusi iragarki batzuen gainean ari gara.

- a) ditugu
- b) ditugula
- c) ditugunak
- d) ditugun

40.- Gaur lehenago irtengo gara;, zerbait gertatzen bada, badakizu nora deitu.

- a) izan ezik
- b) adibidez
- c) dena dela
- d) ordea

41.- Autobidean gertatu den istripua ikusi al du ?

- a) norbait
- b) edozerk
- c) inork
- d) edonor

42.- Aseguru kontratatzera behartu

- a) zitzaizkion.
- b) zizkien.
- c) zizkioten.
- d) zituzten.

43.- Zergatik janzen da beltzez beti?

- a) ote
- b) antza
- c) ala
- d) edo

44.- Gertatutakoa azaldu, ustekabeen harrapatu

- a) zidatenean / zenidan.
- b) zidanean / ninduen.
- c) nizkionean / zidan.
- d) nienean / nizkien.

45.- Ikerketa zientifikoak oso garrantzitsuak, gutxitan aipatzen dira komunikabideetan.

- a) direnez
- b) izateagatik
- c) izanda ere
- d) diren bakoitzean

1	C	2	B	3	A	4	C	5	C
6	D	7	C	8	C	9	A	10	D
11	A	12	A	13	D	14	C	15	C
16	B	17	C	18	D	19	B	20	A
21	A	22	D	23	C	24	A	25	C
26	D	27	B	28	C	29	D	30	D
31	C	32	D	33	A	34	B	35	A
36	C	37	B	38	B	39	D	40	C
41	C	42	D	43	A	44	B	45	C

Proba gaitzeko, gutxienez, 34 erantzun zuzen behar dira.